

Zuia - Gorbeialdea

AURKIBIDEA

HAURREN BERTSOAK

LEGUTIO

3. orrialdea.....Garazi ikastola – 5. maila

4. orrialdea.....Garazi ikastola – 6. maila

URKABUSTAIZ

5. orrialdea.....Izarra Herri eskola – 5. maila

6. orrialdea.....Izarra Herri eskola – 6. maila

ARAMAIO

7. orrialdea.....San Martin Eskola – 5. maila

8. orrialdea.....San Martin Eskola – 6. maila

MURGIA (ZUIA)

9. orrialdea.....Oroko Andra Mari ikastetxea – 5. maila

10. orrialdea.....Oroko Andra Mari ikastetxea – 6. maila

ZIGOITIA

11. orrialdea.....Gorbeia eskola – 5. maila

12. orrialdea.....Gorbeia eskola – 6. maila

ESKUALDEKO BERTSO ESKOLAK

13. orrialdea.....Mapa eta kontaktuak



Garazi ikastola – Legutio 5. maila

NATURArri buruzko bertsoak

Ez kutsatuta daude
bi leku askoz jota
Petronorko lantegian
ke asko dago ta

Gure lana da eta
errekak zaintzea
harrikitik ez bota
olio potea

Gu ondo bizitzeko
ur beharra dugu
gure ibai politikak
zikintzen ditugu

NASAtik etorrira
ai amatxo jope
itsas ondoan daude
mila satelite

Gure zabor guztia
bai zabortegian
gauza asko botatzen
ditugu mendian

Espainiako erregeak
egin zuen kalte
eskopetarekin
hil mila elefante

Ez eskatu txakur bat
gure adiskide
guk bai nahi dugu
animalia libre

Egunero han dago
hegazti bat hila
gure herriko mendietan
haize-errota pila

Ardi-esnea eta
txerri-haragia
animaliak ez hil
behar dute bizia

Mozten dute zuhaitza
asko tope tope
ez dugu behar eta
papera hainbest

Suntsitzen dute basoa
kilometro pila
lurra zulatzen dute
petrolioaren bila

Ura ez amaitzeko
zoaz ba korrika
eskolan ta etxean
txorrota itxita

ESTRIBILOA
Ai natura
zein polita zaren
eta gu berriz
zein gaizki portatzen!

DOINUA
Ai Zapotxin!



Garazi ikastola – Legutio 6. maila

Legutio, Legutio
Dibertigarriena
Legutio, Legutio
Da munduko onena.

Bertso hau guk daukagu
Pantano omenez
Zuek bai ziurrenik
Erreka gehienez
Guk pantanoa dugu
Pistinaren orde
Zuek bai jeloskorrak
Hori ziurrenez
Guk pantano galanta
Ta zuek ezer ez

Gure herriko plazan
Dago asko zarata
ere bai egiten da
Tortila patata
Gure aiton amonek
Hartzen dute manta
Gure okindegian
Ogia galanta
Legutioko plaza
Hoberena da ta

Bi ordu barru goaz
Denok patiora
Gero tokatzen zaigu
Batera euskera
Matematiketara
Gu goaz lanera
Eta bost ordu barru
Guztiok kalera
Garazi ikastolan
Asko ikasten da

Hemen dugu Albertia
Mendi Politena
Herritarrei eskerrak
Mendi garbiena
Arabako menditik
Da guztien ama
Albertia ez balitz
Ai, zelako pena
Mendi guztietatik
Albertia onena

Kaixo lagunak hemen
Herri txikiekin
Hemen dugu Elosu
Polit ta txikitin
Urrunaga ta Urbina
Ai zenbat maitemin
Bizkaian ere dugu
Herri bat gurekin
Agur Murgia agur
Bagoaz lagunekin



Izarra Herri eskola – Izarra
5. maila

Olaizola eta Titin
zelako borroka
Frontoian jolasten da
paretaren kontra
Pilotarekin daude
hainbat jolas mota
Pala, zesta, sarea
eta eskupilota

Gorbeia aldeko herriak
ditugu atsegin
mendiak berde eta
ibaiak urdin
Gorbeia zerbait
nahi baduzu jakin
oso polita eta
belar askorekin.

Gure gela badao
Ikas pilotara.
Itziarrek esan du
Hitzegin euskara
Kirola egitera
gatoz Murgiara.
Ikas pilotan oso
ondo egon gara.

Euskal Herrian daude
horrenbeste paisai.
Eta ere badaude
mendi eta ibai.
Bizi nahi dugu euskaraz
pozik eta lasai.
Ez dugu Euskal Herria
inbaditzea nahi



Izarra Herri eskola – Izarra
6. maila

1) Frontoian sartu eta
Dena da zuzena
Aimar Olaizola da
Pilotan zezena
Mikel Beroizek dauka
Kristoren kemena
eskupilota baita
Jolas hoberena

2) Hemen egiten dira
Horrenbeste txango
Gu denok bizi gara
Dantzaten el manbo
Hemen hartzen ditugu
Hamar mila onddo
Gu Zuian bizi gara
Eta oso ondo

3) Bederatzi eta erditan
Sartzen gara zuzen
Ondo pasatzen dugu
Patioan jolasten
Irakasle hauekin
Klasean aspertzen
Seigarren mailan gaude
Ta beti ikasten

4) Azken urtea gure
Klasean guk pasaz
Institutura goaz
Ez da izango erraz
Ai Aingeru maitea
Hartu ezazu arnas
Agur lagunak ondo
Pasa gu bagoaz

5) Gaur klasera bagoaz
Zelako pereza
Irakasleak beti
Gurekin estresa
Lanak bidaltzea da
Beraientzat erreza
Txanela, mate, gazte
Eta ingelesa

6) Orain etxera goaz
egin zaigu labur
Pilotan eman dugu
Guk nahikoa egur
beste noizbait egongo
gara denok ziur
bagoaz Izarrara
guztiori agur



San Martin Eskola – Aramaio
5. maila

3 txerritxoak

Bazen behin herri baten
ez dakit zergatik
Hiru txerritxo bizi
ziren oso pozik
Tontakeriak egiten
zituzten gogotik
Amak bota zituen
den-denak etxetik

Guk bukatu dugunez
patxada hartuta
Lastozko ta egurrezko
biak bukatuta
Dena dugu jarria
ta ondo lotuta
Handiari burlaka
bukatu ez du ta

Txikienari bota
lehenengo etxea
Bigarrenari ordea
egurrezko atea
Etorri ziren otso,
euri ta haizea
Baina ez zuten lortu
etxea botatzea

Etxea egiten hasi
zen txerri gaztea
Lastozkoa egin zuen
handia atea
Ta ertainak egurrez
etxean bidea
Azkenengoz handiak
egin zuen etxea

Mendira heldu eta
hasi zen txikia
Lastozko etxetxea
gainera horia
Bigarrenak ordea
egurrez hasia
Ta adreiluzkoa zen
nagusian etxia

Bukatu da ipuina
bukatu da kitto
Hala bazan ta ez bazan
hala da betiko
Eta otso hori ez
da gehio biziko
Eta ez da gehiago
otsoa etorriko



San Martin Eskola – Aramaio
6. maila

Bazan behin herri eder bateko
Jente majo eta ganberro antzeko
Arabako Suitza txikiñe
Inun ezta ez honen bardiñe
Porru ta leka
Batzuk bezela, sarri, tarteka,
Beti hasarre zazela eta

Beti zebitzen batak bestiei
Adarra joten onena zein ei
Orixoleko bi magaletan
Bi herri txiki ta ederretan
Ze errespeto
Jokatzie iwel be hobeto
Karrera baten mugak jarteko

Bi herrixetako azkarrenak
Aukeratu izeteko lelenak
Herriko plazan zeuden prest biak
Markatzeko behingoz euren mugak
Eta goixien
Bi azkarrenak urtengo zien
Oilarrak kantetan zauenien

Aramaixoko baserritarra
Tranposue eta buruz azkarra
Kandela ixotutranpa eginez
Ta oillarrak kukurruku errez
Bene-benetan
Danak txaloka zeuzen Kurtzetan
Ta Aramaixo lehenau urten zan

Etzetik azkar urten fortzaute
Zapatillak jarri ta armozaute
San Kristobaletik gora bueltan
Bertatik pasau zan añiketan
Atxetan gora,
Allegau zien sobran denpora
Otxandixoko erreka ondora

Aramaixok irabazi zauen
Pistina guretako izengo zien
Horregaittik ga tranposo hutsek
Hoixe eskaketan duzku gorputzek
Irabazian,
Aramaixo_osue hasi zan dantzan
Hala bazan ta hala ezpazan



Gorbeia Eskola – Zigoitia
5. maila

Ezin da inon bizi
hemen baino hobeto
Zigoitian herri asko
ondo pasatzeko.

Gu aurrera ta_atzera
gabiltza_ eperrekin
Kontuz ibili behar da
Karabinarekin.

Klase_ondoren zerbait jan
ta kalera irten
Beti egoten gara
txabolak egiten

Murutik igotzeko
Bide oso luzea
Gorbeia mendia ta
Goian gurutzea

A ze_eguna gaurkoa
festa eta algara
Ta guztion artean
Osatzen Araba.

Ai zapotxin
Etorri gurekin
Gorbeia eskola
ta_hango zoroekin

Animaliak ditugu
soroetan begira
Zigoitiako zoroak
bai politak dira

Ardiek belarretan
Zenbat kalejira
Gorbeialdeko gaztak
Oso onak dira



Gorbeia Eskola – Zigoitia
6. maila

Kaixo lagunak hemen gaude gu
Ondo jaten ta hizketan
Ondo gabilta ikustekotan
Bi astetan gaude bueltan
Parisen egon gara gustora
Hau polita da benetan
Espero dugu ondo egotea
Gorbeia aldeko lurretan
Agur aspaldiko ikusi arte,
Odo pasa oporretan



Oroko Andra Mari - Murgia
5. maila

ZUIA, ZUIA ESKUALDEA
JENDEA IRRIFARTSUA ETA LUR BERDEA.

MURGIAKO BEHI DENAK
KAKA ETA KAKA
GUK LANDATZEN DUGUNA
BATZUTAN PATATA

GIZON ETA EMAKUME
GUZTIOK KORBATA
GURE MENDI POLITE
ORO DEITZEN DATA

GORBEIA NEGUAN BAI
JARTZEN DA ZURIA
LEGUTIO ARAMAIO
IZARRA MURGIA

GU IRABAZLEAK GARA
GURETZAT SARIA
ZUIA IRABASLE DA
ETA BAI HANDIA

GURE ESKOLAN EGITEN
HIZKUNTZA POLITA
EUSKARA DENOK DUGU
ATZETIK JARRAIKA

BERDIN ETXEAN EDO
KALEAN KORRIKA
GURE EUSKARA MAITEA
HOBERENA BAITA

GURE ESKOLA DATA
LEKU HOBERENA
PATIO NAHIKO HANDIA
BARRUAN DUENA

BERTAN AHAZTEN DITUGU
HASERRE ETA PEN
ZUIA LEKUA BAT DATA
ETA POLITENA



Oroko Andra Mari- Murgia
6. maila

Eskola asko etorri dira,
dena autobusez betea,
gure herria oso polita,
espero dut bueltatzea
Eskola asko etorri dira,
espero dut bueltatzea

Guk pilotak erosi ditugu,
bat gogor eta hiru bigun,
ostirala da azken eguna,
zuekin jolas dezagun,
guk pilotak erosi ditugu,
zuekin jolas dezagun

Murgia herri politena da,
hemen ez daude maltzurak,
Murgian bakarrik zoriontsuak,
beste herriak azkarrak
Murgia herri politena da,
Beste herriak azkarrak

Eskerrik asko etortzeagatik,
berriro etxera buelta,
ikas pilotan dibertigarri,
ondo pasatu dugu eta
Eskerrik asko etortzeagatik,
Ondo pasatu dugu eta

Eskualdeko bertso-eskolak
2013-2014 ikasturtea

LEGUTIOKO BERTSO-ESKOLA

Legutioko Kultur Etxea
Ortiz de Zarate enparantza z/g
01170 (Legutio)
Kontaktua: Oihane Perea
Tel: 945 455472 (Kultur Etxea) - 945 010505 (Arabako Bertsozale Elkarteak)
e-posta: araba@bertsozale.com



ARAMAIOKO BERTSO-ESKOLA

Aramaioko Kultur Etxea
Nardeaga, 36 (Ibarra).
01160 ARAMAIO
Arduraduna: Txema Abarrategi
Telefonoa: 945 010505 (ABE)
e-posta: araba@bertsozale.com

IZARRAKO BERTSO-ESKOLA

Urkabustaizko udala
Udaletxe plaza
01440 IZARRA
Arduraduna: Manex (euskara teknikaria)
Telefonoa: 945 437080 (Udala) - 945010505 (Arabako Bertsozale Elkarteak)
e-posta: euskara@cuadrillazuia.com

MURGIAKO BERTSO-ESKOLA

Murgiako institutua
Domingo de Sautu, 65
01212 MURGIA
Arduraduna: Uxue Diaz de Cerio
Telefonoa: 945 010505 (Arabako Bertsozale Elkarteak) — 688616531



arabako
bertsozale
elkarteak

AMAIA ZENTROA
Benito Pérez Galdós z/g
01002 GASTEIZ
Tel: 945010505 fax: 945288275
Mug: 688695875 - 688616531
e-posta: araba@bertsozale.com
www.bertsozale.com/araba